

BOLUMEN LANTEGIA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Belen Flamarique	Maila	2. Batxilergoa	Ikasturtea	2020/2021
-----------	------------------	-------	----------------	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK	UNITATEAK				
1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1	2	3	4	5
3) Gaitasun digitala.	1	2		4	5
4) Ikasten ikastea.	1	2	3	4	5
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5
6) Ekimena eta ekintzailtza.	1	2		4	5
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5

EDUKIAK

1. **Eraikuntza Teknikak: PLANOTIK, bi dimentsioko egitura batetik ABIATUTA BOLUMENA SORTZEA. Gai berri bat ezagutu: GOMAESPUMA..**
2. **Artea eta inguruko espazioa:** ikuslea eta arte lanaren arteko hartu-eman, eskulturaren kontzeptua zabaltzea: **Instalazioak, Land Art, esku hartzeak, performance.**
3. **Eraikuntza Teknikak: Tailaketa, objektu organiko xume baten taila.**
4. **Eraikuntza teknikak: Modelatzea Autoerretrotoa,** norbere buruaren modelaketa buztinez, ikonizitate maila altuan.

5. **IKONIZITATE MAILAK: aurkezpena** (ready-made), **interpretazio subjeliboa**, **formen sintetizazioa**, **eskematizazioa**.
Autoerretroaren interpretazio subjeliboa.

HELBURUAK: GUTXIENKO GAITASUN MODUAN DEFINITUAK

Hiru dimentsioko hizkuntza ezagutu eta ulertu, obra eta objektu bolumetrikok sortzeari aplikatutako oinarriko kontzeptu eta prozedura artistikok bereganatu.

Ingurua arakatzeko jarrera aktiboa izatea, kultur inguruko sistema ikonikoaren barruan hiru dimentsioko mezu gisa har eta uler daitezkeen agerpenak bilatzeko. Ezinbestekoa da bilaketa hori hausnarketaren laguntzaz egitea, alde aurreko iritzi eta ideiak alde batera utzita.

Ehundura, akabera eta trataera kromatikoen ahalbideak baloratu eta norbere lan bolumetrikokan era koherentean erabili, hau da, formaren balio plastikoak areagotzeko.

. Garbitasuna, txukuntasuna, eta begirunea erakutsi behar ditu eta baita zailtasunen aurrean ere gainditzeko gogoia eta ez etsipena.

Balorazio eraikitzaileak egiteko gaitasuna eta autokritikarako gaitasuna eratzten duten esperientzia kognitibo eta sentsorialak harmonizatzea, zentzu estetikoak gara dadin

Ikuspegi analitikoak eta sintetikoak aplikatzea, hiru dimentsioko objektuak eta artelanak aztertzean, eta ikusten eta sentitzen ikastea, objektuaren egituretan eta barne logikan sakonduz, eta, sintesi eta abstrakzio prozesu baten bitartez, objektua irudikatzea iristea.

Ikus-informazioa aztertu eta interpretatzea ondorengo itzulpen plastikorako, bizitzan zehar erabiliko den komunikazio bide gisa.

Jarrera gogoetsu eta sortzailea garatzea, inguruko ikus-kulturaren arazo formal eta kontzeptualei buruz

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

ORD.	1. ebaluazioa	ORD.	2. ebaluazioa	ORD.	3. ebaluazioa
22	Eraikuntza Teknikak GOMAESPUMAZ ERAIKIZ. PLANOTIK, bi dimentsioko egitura batetik ABIATUTA BOLUMENA SORTZEA.	16	Eraikuntza Teknikak Tailaketa, objektu organiko xume baten taila.	12	Eraikuntza teknikak: Modelatzea Bolumen exentua, burua Autoerretroa , norbere buruaren modelaketa buztinez, ikonizitate maila altuan.
18	Artea eta inguruko espazioa: ikuslea eta arte lanaren arteko hartu-emana, eskulturaren kontzeptua zabaltzea: Instalazioak, Land Art, esku hartzeak, performance.	20	Eraikuntza teknikak: Modelatzea Bolumen exentua, Autoerretroa , norbere buruaren modelaketa buztinez, ikonizitate maila altuan.	20	IKONIZITATE MAILAK: aurkezpena (ready-made), interpretazio subjeliboa , formen sintetizazioa , eskematizazioa . Autoerretroaren interpretazio subjeliboa.
40		35		34	

METODOLOGIA

Gure helburua da banan-banako irakaskuntza sortzaile eta gogotsua ematea, eta honen ondorioz emaitzari baino ikaskuntza prozesuari ematen diogu garrantzia, kontzeptuak esperimendatzen eta finkatzen ari direneko prozesuari..

Hau horrela izanik banan-banako irakaskuntza honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- Irakaslearen aldetik jarrera ireki eta malgua.
- Ikaslearen eta bere ahalmenetan konfidantza jartzea.
- Klaseetatik monotonia aldentzea.
- Ikaslea eta irakaslearen arteko begirunea, konfidantza eta elkar ulertzea ezartzea.
- Baliabide egokiak erabili autoheziketa eta autoebaluzazioa ahalbidetu. Bai departamentuko liburategia, bai institutuko erabiliko dira dokumentazioa

Metodo sortzailea

- Interesa eta aurreikuspena piztu.
- Xumea dena arrotz bilakatu eta arrotza xume.
- Gaiak ikuspuntu aniztetatik tratatu.
- Harridurarako gaitasuna esna mantendu.
- Lekuak eta gertakariak erakutsi, bideo, erakusketa eta ikusentzunezkoen bidez.
- Etorkizunari begiratzen dioten planteamenduak erabili.
- Irtenbide anitzak bultzatu.

biltzeko.

Eguneroko metodologiari dagokionez unitate berrien hasieran aurkezpen audiobisuala egingen da non eta azalduko dira kontzetu berriak, bai ariketaren helburuak eta pausuak zein beste ikasturte batzuetako ikasleen lanak, adibide gisa, eta baita zenbait artelan erlazionatuta. Modu honetan eskultura garaikideari hurbilketa ere ahalbidetzen dugu. Material teoriko eta ikus-intzunezko guztia **ikasgela birtualean** ere jarriko dugu. Modu berean ikasleek eginiko lan teorikoak, iruzkinak eta euskarri digitalean daudenak ikasgelaren bidez emanen dituzte. Guzti honetarako gelako proiektorea eta interneterako konexioa ditugu baliabide.

Aurkezpenaren ondoren ikasleari egun batzuk norbere etxean ausnarketa egiteko eta proposamen berriaren inguruko ideiak biltzeko denbora ematen zaio eta bitartean gelan aurreko proposamena bukatzen aritzen da eta amaitzen duenean lan berriaren atal praktikoari ekiten dio eta orduan irakasleak aholkuak eta zuzenketak ematen aritzen da.

Gela taller baten modukoa da eta hau dela eta txukuntasuna eta garbitasuna ezinbestekoak direnez horren kontrola ere eramaten da.

Generoaren ikuspuntua oso kontuan hartuko dugu, bai gelako espazioaren erabileran, taldeko giroan eta ariketa guztien aurkezpenetan adibideak aurkezterakoan emakumezkoen arte lanak plazaratuz eta ezagut araziz.

EBALUAZIO SISTEMA

Euskara komunikazio-tresna da institutuan. Beraz, ez erabiltzeak penalizazioa suposatuko du. Era berean **ortografia** edota **adierazpen** akats larriak penalizatuko dira.

Irakasgaia praktikoa den neurrian, eta askotan talde lana izanik, klasera %20 ez etortzeak ebaluazio jarraiaren eskubidea galtzea ekarriko du, salbuespenak salbuespen. Kopurua bai hutsegite justifikatuak bai justifikatu gabeen batuketa eginez aterako da.

Nahiz eta irakasgaia guztiz praktikoa izan, ebaluazioak ez du kontuan hartzen bakarrik gai bakoitzean proposatu **ariketen aurkezpena**, baizik eta lan hoietara bideratzen zaituen **prozesu osoa**, hau da, denbora, materialak eta baliabideen aprobetxamendua, zirriborroak, frogak, saiatzeko okerrak, e.a.

- **Gelako denboraren aprobetxamenduari dagokionez** egunero kontrola eramango da, irakasleak baloratuko du ordu horretan egindako lana nahikoa izan den ala ez, eta ariketaren bukaeran, kalifikazio irizpideetan %20 suposatuko du, beraz etxetik eginga ekartzen denak gehienez ere 8 eskura dezake.
- Lanak emateko atzerapenak penalizatuko dira:
 - Egun bakoitzeko atzerapenak 0,5 puntu gutxiago suposatuko du.
 - 6. saiotik aurrera ez dugu lanik zuzenduko, zuzenean berreskurapenaren trataera emango zaio gehienezko nota 5 izanez.

BERRESKURAPEN SISTEMA

Berreskuratzeko modua:

Ahal den guztietan gainditu gabeko ariketaren edukiak ondorengo ariketen edukiekin sartzen saiatuko gara, modu honetan hurrengo ariketa gaindituz gero aurrekoa ere gaindituko luke. Hau ezinezkoa denean ariketa bereziak planteiatuko ditugu edota suspenditutakoaren errepikapena. Ebaluzioko nota, gutxienez, 5 baldin bada nahiz eta lanen batean edo gehiagotan 4 izan, ez du berreskuratu behar izango.

Ohiko eta ez ohiko deialdien kasuan ikasturtean zehar aurkeztu ez dituen lanak edota ez gainditutakoak errepikatuak aurkeztu beharko ditu eta horretaz gain azterketaren egunean ordu ta erdi batean egiteko moduko ariketa-azterketa planteilatuko diogu.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar COVID 19K eragindako egoeraren arabera ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.